



STIJN CALLENS ▶ SOS ARRAZAKERIAKO ARDURADUNA

## «Esperientzia, ezagutza eta laguntza dira gure baliabideak»

**TOLOSA** ▶ Etoraginei gizarteratzen laguntzen egiten du lan, SOS Arrazakeriaren bulegoan

**LANA** ▶ «Administrazioari buruzko infomazioa eta harremanetarako behar dutena argitzen diegu» ▶ 2



Stijn Callens, SOS Arrazakeriak Tolosan udaberritik duen bulego berrian. E. MAIZ



## Abesbatzen egunerokoa gertuagotik ezagutuz

**TOLOSA** ▶ Gaur izango dira entzungai azken saioak eta gauean epaimahaiak ebazpena emango du jakitera Beotibarren ▶ 4-5

AITOR MENDILUZE ▶ BERTSOLARIA

## «Lehiaketan aritzeko prestakuntza mentala da garrantzitsua»

Bihar ariko da Bertsolari Txapelketan Tolosako Usabalen 17:00etan ▶ 3

## SHUYANA EDERGINTZA




Abdomen



Gluteoak



Hankak



Besoak

### BERRIKUNTZA

SISMOFITNESS plataforma  
Moldeatu, Gogortu, Indartu  
GORPUTZA BERREZI

Iraultza edergintza eta ongizate alorrean.

Proba eza doan azaroaren 8an



AITOR MENDILUZE ▶ BERTSOLARIA

# «Garrantzitsua prestakuntza mentala edo psikologikoa dela uste dut»

Bihar Tolosako Usabal Kiroldegian 17:00etatik aurrera, sei bertsolari ariko dira finalurrekoetarako txartelaren lehian

ASIER IMAZ

G puntua Tolosara helduko da bihar. Usabal kiroldegian, 17:00etan haserako fasean aritu ez diren Jon Maia eta Iruran bizi den Aitor Mendiluze (Andoain, 1975) sartuko dira saltsan. Hauek, azken Gipuzkoako Txapelketaren finalean egon zirenez, final-laurdenetako txartela zuzenean lortua zuten. **Prest ikusten al duzu zure burua Tolosako saiorako?** Nik behintzat ez diot nere buruari sekula antzematen presatuta nagoen edo ez. Zaila da antzematea. Zeozer aritu naiz baina gehiegi ez dut egin egia esan, hala ere gogoarekin nago.

**Nola prestatu duzu Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa?**

Nik uste dut batez ere prestakuntzak mentala izan behar duela; zer datorren edo zer egin nahi duzun prestatzea. Hori dela uste dut prestakuntza zailena; txapelketan zer egin nahi duzun, nola egin nahi duzun, eta gero horren arabera teknika edo kantaera landu, lagunekin bilduko zara edo dena delakoa. Baina lehenik eta behin, garrantzitsua, prestakuntza mentala edo psikologikoa dela uste dut.

**Ezti sartuko zara txapelketan, besteak aurretik datozten bitartean. Presiorik sortzen al dizu egoera honek?**

Ez dut uste zerikusirik duenik. Lehenengo fasea gainera gauza bat da eta fase hau beste mundu oso desberdin bat da. Ez dago antzekotasun handirik lehenengo fase hortatik final-laurdenetara. Egia esan, besteak Txapelketan kantatuta datoz baina neurri handi batean denok zerotik hasiko gara etzi. **Jon Maia ere zurekin hasten da Tolosan eta final-laurdenetan; bi faboritoak agian?** Ez dakit. Nik ez daukat faborito handirik. Gainera, faboritoak hartzea ez zait gustatzen. Iruditzen zait, faborito bat baldin baduzu besteen merituak ez direla hain erraz onartzen. Agian zure faboritoan gehiago fijasitzen zarela esan nahi dut, eta besteetan gutxiago. Normalean nahiko irekia joa-



BERTSOZALE ELKARTEA

ten naiz, ez naiz egoskortzen batekin edo bestearekin.

**Nola ikusi duzu orain arteko Txapelketa?**

Txapelketa gehienak joaten diren bezala. Lehenengo fasean beti bezala sorpresaren bat edo beste, eta gero normalean batzuk oso ondo, beste batzuk agian dezaketena baino bajua-gotik baina hurrengo faseako sailkatuz eta beste batzuk oraindik zer ikasia eta zer landua badaukatela ikasiz. Alde horretatik sorpresa handirik ez dut ikusi, baina gauza polit asko bai, hori bai.

**Gaundituz gero hurrena, finalerdian Ordizian izango dira. Eta ondoren Ilunben finala.**

Oraindik ez dakigu zer izango den eta orduan lasai hartu beharko dugu. Donostiako Ilunbekoak (Gipuzkoa) berriz berak dauka itxura polita, final

bezala, leku ederra delako, baina ikusiko dugu.

**Parte hartu ez duten izeneko pisua kendu al diote txapelketari?**

Beti pentsatzen dut txapelketa, doazenen artean jokatzeko dela eta doaztenak zerbaitengatik doaztela. Batzuk esaten dizute, halakoa ez doa eta halakoa ere ez. Ondo iruditzen zait, logikoa gainera. Plazako pisua, erritmoa eta denari eustea kosta egiten da. Batzuk esan didate honetan jardun baino nahiago dutela beste gauza batzutan jardun; normala da. Eta ez dut uste txapelketari pisua kentzen dionik. Ikusi besterik ez dago lehenengo fasean zenbat jende ibili den. Txapelketa bera da txapelketa bezala erakargarria, eta hortik aurrerakoie ez zaie buelta gehiegi eman behar.

GIPUZKOAKO EUSKAL KANTU TXAPELKETA ▶

## Donostiako finalean eskualdeko gazte ugari

Antzoki Zaharrean hilaren 10ean egingo dute finala 18:00etatik aurrera 3 mailatan

A. IMAZ

Donostiako (Gipuzkoa) Antzoki Zaharrean egingo dute hilaren 10ean 2007ko Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketa. Hurrengun, 3. eta azken finalurrekoaren ondoren, finalean arituko diren lehiakideen zerrenda erabakirik gelditu zen. Donostian hilaren 10ean eta 18:00etatik aurrera, gure eskualdeko kantari hasi berri hauek ikusteko aukera izango da, beraz.

Bakarlarrien mailan, Zizurkilgo Alaitz Ormazabalek, Txiki kantua abestuko du. Oihane Sarasola ibartarrak Anje Duhalderen *Gogoaren baitan*

eta Asteasuako Naroa Geres-tak, Xabier Letek idatzitako *Ez kanta beltza*.

Bikoteka, Villabonako Kristina Aranzabe eta Leire Berasaluzen egongo dira eskualdeko ordezkari bezala. Arantza Goinxak eta Marta Estanga lizartzar eta tolosarrak osatzen duten bikotearrekin batera. Lehenek *Zure Doinua* abestuko duten bitartean, bigarrenek Lauaxetaren *Mendigoxaliarena* kantatuko dute.

Azkenik, taldekako arloan, T-KLAX ibartarrek, *Zoo ilogikoa 2* kantua abestuko dute Donostiako Antzoki Zaharrean.

ARESO ▶ PILOTA

## Mikel Olazabal Lau t'erditik kanpo geratu da



Mikel Olazabal saka ateratzen, Diaz prest erantzuteko. ASIER IMAZ

A. IMAZ

Bigarren Mailako Lau t'erdiko final-laurdena jokatu zuen atzo Mikel Olazabal aresoarrak, Tolosako Beotibar pilotalekuan Diazen aurka. Bi pilotariek, finalerdietako ligaxkan parte hartzeko txartela zuten jokoan.

Haseran Olazabal jarri bazen aurretik, 13-5eko emaitzarrekin, ondoren Diazek agindu

zuen 22-18 amaitu zelarik partida. Partidu gogorra jokatu zuten bi pilotari gazteek eta Olazabal txapelketatik kanpo geratu zen itxura ona emanaz.

iragarki laburrak ▶

**BESTEAK**

**Txakurkumea.** Arratoi bakurkume bat erosi nahi dugu, arra izan dadila. 637 47 48 23.

**ARAMBURU**  
Salgai (Ibarra), Garajeak Euskal Herria kalean, irekiak.  
Salgai (Tolosa), Garajeak Leidor azpian.  
Salgai (Ibarra), Lokala Euskal Herria kalean.  
Salgai (Tolosa), Garaje itxia San Frantzisko kalean.  
Salgai edo Alokatzeko (Lasarte), Lokala, tximiniarekin, zentroan.  
Alokatzeko (Tolosa), Garajea irekiak, Araba etorbidean.  
Alokatzeko (Tolosa), Garaje itxiak, San Frantzisko eta lurren.  
Alokatzeko (Leaburuko bidean), Pablioi industriala.  
943 65 17 13 / 677 46 09 16

39. ABESBATZA LEHIAKETA >

# Ahots taldeen txanda orain

Gaur Santa Klara elizan musika erlijiosoa entzun ahal izango da eta arratsaldean Leidorren musika profanoa; gauean, berriz, epaileek emaitzak jakitera emango dituzte Beotibar pilotalekuan

## NEREA URIBIZU

Tolosako 39. Abesbatza lehiaketako azken lehiakideak gaur ariko dira eta musika erlijiosoa eta profanoa jorratuko dituzte. 11.00etan Santa Klara Elizan musika erlijiosoa saillean parte hartuko duten ahots taldeen emanaldiak izango dira. Aurretik sei abesbatza ariko dira, eta bat haurren abesbatza da. Arratsaldean, Leidorren musika profanoa sailseko oharrekin entzun ahal izango dira, gotzoko abesbatzen aholotarik. Ondoren, Golden Apple Quartet taldea ezagunaren kontzertua izango da. 22.00etan Tolosako udalaren lehiaketa etorri diren abesbatza zuzendari eta pertsonalei harrera ofiziala egingo die. Gaietan Beotibar frontoian abesbatza dantzialdia izango da, eta epaileek irabazlearen izenak emango dituzte.

**BOCA QUE USA Jatorria.** Nibero (Brasil). **Zuzendaria.** Roberto Fabri.

## Taldeakideak.

8 emakume eta 7 gizon. **Historia.** 10 urte duzula abesbatzak eta musika, zuzendaritza artistiko eta entsegu dinamika ikuspegitik lan berritzaile baten onarazian sortu zen. Bere errepertorioaren prestaketa, egintza eta aukeraketan taldeko musikako kontzeptuak eta sormena bilatzen dituzte. Brasilgo musika arloan gutxi interpretatutako lanei balioa ematen die.

**CAMERATA VOCALE SINE NOMINE Jatorria.** Habana (Kuba). **Zuzendaria.** Alexis Rodriguez. **Taldeakideak.** 12 gizon. **Historia.** 2003an eratu zen. Gizonetako abesbatza soprano, kontralto, tenore eta bariton abesbatza egiten dituzte, oso berezia izaten da. Estreinaldia 2004an izan zuten eta talde ospetsuenak abestu izan ditu.

**PEGASUS Jatorria.** Londres (Erresuma Batua).

## Zuzendaria.

Matthew Altham. **Taldeakideak.** 8 emakume eta 8 gizon. **Historia.** Londrestako abesbatza nagusiakoa bat da. Errepertorio antzinako kantak, errenazimendutik konpositore garaiakideraino. Beste ekintza batzuk egiteko moduko entseguak antolatzen dituzte.

**AVE CHAMBER CHOIR Jatorria.** Ljubljana (Eslovenia). **Zuzendaria.** Alinzar Huguin. **Taldeakideak.** 18 emakume eta 18 gizon. **Historia.** Asteazkenean Leidor antzokian aritu ziren. 1994an eratu zuten abeslari sutsu talde batek Vicoce parrokiari. Bere interpretazioen freskotasunak eta Hauptman maisuaren zuzendaritzapeko musika zorrotz-tasunak abeslari ugari erakar-tzen ditu eta Eskoziako abesbatza onenentziko batean bihurtu ditu. Batez ere 1988tik aurrera. Eskoziar kontzertu ugari eta nazioarteko jaialdi-dietan parte hartzen dute.

## THE ROSE ENSEMBLE

**Jatorria.** Saint Paul (AEB). **Zuzendaria.** Jordan Sramek. **Taldeakideak.** 6 emakume eta 6 ahots. **Historia.** 1996an sortu zuten zuzendariak. Kompositore garaiakide leku eta gaitzarrak ostu eta argituak dituzten lan berriak idatzeko eskatzen die. Egitarau estilo eder eta entseguerraz sortu da.

**CANTILION CHAMBER CHOIR Jatorria.** Edmonton (Kanada). **Zuzendaria.** Heather Johnson. **Taldeakideak.** 30 neska eta 2 mutil. **Historia.** Oteagunetan egin zuten Tolosan lehen saioa. Leidor antzokian, 1999. urtean sortu zen. Kanadako haur abesbatzari nabarmenetakoa da. Bere abeslariak musika gaitasun araberako aukeraketa dituzte eta zorrotz profesionalen lan egiten dute. Sari ugari irabazi dituzte haur baxak. Entonazioa asko lantzen dute.

## EGITARAU >

**AZAROKAK 3 GAUR 11:00.** Santa Klara Elizan musika erlijiosu sailseko taldeen emanaldia.

**16:00.** Leidorren musika profano sailseko parte-hartzaileentzako taldeak.

**20:00.** Leidorren Golden Apple Quartet taldearen kontzertua.

**22:00.** Tolosako udalaren lehiaketa etorri diren abesbatza zuzendari eta pertsonalei harrera ofiziala egingo zaie.

**23:00-02:00.** Beotibarren abesbatza dantzialdia eta epaileentzako erabakia jakitera emango dute.

**AZAROKAK 4, BIHAR 11:00.** Leidorren lehiaketako amarietako saioa eta sari banaketa. Gero, *Agur Jaurri* abesbatza dute.

**14:30.** Abesbatza bazkaria Ferialekuan. **19:00.** San Franzisko Elizan, Noregiko Kammerchor Nova abesbatzaren saioa.

keta. Entruzteko askoz kalitate hobetua dauka. Behar bada ukintzen bat gehiago beharko luke, baina jakinaraz gaitasun daude eta aurrera pausoa eman da bide onetik doaz. **Nolako musikak jorratzen dituzte?** Zaila da ukigaitza, soziologikoki egoera ez dagoelako horretarako. Ez dago teknika lantzeko eskola finko bat. Baina ez da etsi behar, eta parte hartu dutenek lan baxua egin dute. <



XABIER SARASOLA

XABIER SARASOLA > EPAMAHAIKIDEA

## «Euskaldunek Euskal Herrian egiten ari den lana erakutsi zuten»

Xabier Sarasola mundu mailako beste hainbat epamahiak jantzen aritu da (Beasain, 1960), baina Tolosan lehenengo aldiz da. **Zer moduzko maila sartu?** Kanpoan ibili naizenean ere hainko maila ikusi dut. Egan da Tolosan abesbatzak direla

onak edo oso onak. Aurretik ere maila orokorrean ona edo ona izan da. **Ikusialdiak izan dira.** Europa mailako topaketak bat da eta sartu bi izatea zortea da. Lan txukuna egin zuten. Euskal Herrian egiten ari den lana erakutsi zuten. Tolosara

hantzen apezta, ausartza, ez da gutxi eta suposatzen duen lana ez da bromakoa. Merito handia dute. **Zer moduz Leidor antzokian?** Lehengo urtean keak izan ziren, ez baitzen asko nabaritu hobeak. Aurretik kontua jarri nabarmena izan da alda-



Kubatarrak Tolosako kaleetan zehar, entsegura bidan. N. URIBU



Cameraata Vocale Sine Nominis ahots taldea, Santa Klaran entzagetan. N. URIBU

## Farinelliren atzetik

Kubako gizonetako ahots taldekoek, lehiaketatik kanpo, 15 minutuko entsegu motza Santa Klaran egin zuten

## A. INAZ, N. URIBU

Kubakoekin topatu gara gromonologiko zaharrra. Surtu gaituzten, bertan baitu egin haurtan etxea eta entseguak ere han egiten dituzte. Antonio Nibarrari egotzi-tu zio Kubatarrak gidari lanetan aritza. Berarekin gundela, gizon-emakumeen abesbatza dantzialdia eta epaileentzako erabakia jakitera emango dute.

«Camarata Vocale Sine Nominis ahots taldeak batu berezitasun bat: denak gizonak arren, abesbatza mixtoaren parera baretzen dute, hau da, emakumeen ahotsa ateratzen

da gizon batzuen ahotsik». Ar-gaztetan denak mutiak zirela ikusi dugu eta Dianelys-en hitzak kezka argitu digute. Ondoren, abeslariak etera dira beroketa egitetik, eta irribarretxu hurrildu zaizkigu. Kubako Farinelli bezala ezagurua dena auzoket digute, bera baita Kuban kontratzen diren graduatuak atera duen lehen gizona, baina kontratuzko ez dagoela ziurtatu dute algar artean. Musikaren inguruko hitz tekniko hainbat errotak izan edo ez izan, barnean jakinmina gaitu zaigu. Zorte handia izan dugu, 15 minutuko entsegu egin behar baitzuten orduan Santa Klara Elizan. Etxariak babestu eta kalera abiatu dira; «Kuban horrela

IRITZIA > MIGEL ZEBERIO (KORU ETA ORKESTRA ZUZENDARIA)

## Deigarrietik, hunkigarrienera



MIGEL ZEBERIO

handiegitan sartu ez ote zelakoan nago. Biondiak handiz baina ahots teknika-zen mugak sorturiko mugatuasun urriak ez zuten bere alde jokatu. Halere, aitortu beharra diegu, beren herriko erritmo joko korapilatua eta ederrak urrundik ere ezin egingo gertuzlela europarok egin. Irrikitan geundelarik, beste aukeretan hego edo entamerikarrek utzi dituzten oromen gusa bere borrean gelditu zaigu oraingoan.

Sye Ensambleko kantari sargapartarrak ere mailatu ekin zuten lehen saioari. Nabarmenezkoak, ezustekoa zer? Alberto Grau konposatze amerikararen *Ferzan alburiz* euri jasaren bururanda eta ateraren ingurumaria hurbildu gertuzten. *Hot seta* onomatopoeia berritzailean laguntza. Orduan ere egin abaz gertuzteko gertuzteko dituzten filipin-

gek maiz utzi dizkiguten momentu eder-rrak. Antzekotasun dezenteak bi abesbatza ere entzuten genituen. Kasualitatez hurbileko bi herri bata bestetaren atzetik: Oidenburg (Alemania) eta Camando (Belgika). Biak ziren biak mardulak, polifonik folkloroan baino ablagarok, zuzenki eta erabakiaz ikusapuru teknikoak. Duzarik gabe, atsegirik, baina lagun nafar eta koruzale amorratu batak dioten eran, kozkor gutxiokak. Auzerari nahigo dut, gunitaren gaitetik, emozio eta zarra sortarazteko gai den taldea. Hau motuz eta atzo esan nuen, Rigako Kontzertatorko Abesbatza (Letonia) izan da. Polikoroan, ez zuten deigarrietatik jo eta K Nystedt-en O Cruz-en bezalako kolore burruna ederrik errepikatuko ere garrantzako taldeek ez bezala-

ko potentzia, timbre, esaldi joko eta beste, murgaritzen zutela nabarmendu zuten. Harturri eta atsegin suertatu zait, aurretik obra behartu den Lazkanoren Lil edo bat bora ederrak eskaintzen antz dioten abeslariak suberitara. Gutxitan egin ohi da euskarazko errepertorioan hizkuntzari dagokion zainza, eskertze-koa da. Musikaik euskaliter aldizkeri aberastasuna eta ezberdintasuna gehitzen baitate parturte.

Euskararen ereduak dindia eta iradokizunen bat ere ausartki egingo nuke; esku eta egitarau orokorren, herrialde-er izenak euskararen arauak jarraitzea ez lagoko sobera. Abesbatza izenaren ere beste hainbeste: izen nagusia beret-ko hitzuntzari behar luke ez ordea gaitzuntzekoak eta amatzoko obrerak euskaraz edo euskaraz ere jartzea mesederat izateko. Adidide; Berlingo Orkestra Sinfonikoa, Sibeliusek J. Sinfonia joko du. Mía Ekser eta hurrenetara.

LEITZA ▶ KULTURA

# Liburuez jositako txoko hori

Liburutegiak 10 urtetik gora daramatza leku berean, baina 1969. urtean sortu zuten Amazabal patronatuak, eta hau desegitean Nafarroako sarean sartu zen

Nafarroako Gobernuak. «2 ordenagailuetara ohitu gara, batzuetan jendeak zain egon behar izaten duen arren».



Gazteek zaharrek baino gehiago irakurtzen dutela dio Huarte liburutegiko arduradunak. N. G.

**NAIARA GARZIA**

Leitzako liburutegia 1969an ireki zen. Orduan Amazabal patronatuak ireki zuten eta ordutik bide luzea egin du, 38 urte hauetan.

Jose Luis Huarte liburutegi-ko arduradunak liburutegiaren nondik norakoak azaldu ditu. «Amazabal patronatuak ireki zuenetik horrela egon zen 1980-1982 arte. Orduan, patronatua desegin zen eta liburutegia sarera pasatu zen». Horretarako Nafarroako Gobernuak eta Leitzako Udalak hitzarmen bat sinatu zuten. Orduan oposaketa batzuk atera ziren eta ordutik Jose Luis Huarte da Leitzako liburutegiko arduraduna.

«Lokal zaharrea 10 bat urte egin zituen liburutegiak», dio Huartek, «eta handik beste lokal batera joan ginen. Gero horko nagusiak arraindegia jarri nahi zuenez, liburutegi erdia kendu zuten eta bolada ba-

tean atzealdetik ireki genuen, baina oso txikia gelditzen zen. Azkenean beste lokalik ez zegoen eta hona etorri ginen. Hau garai batean ikastola izan zen, une horretan hutsa zegoen, eta nolabait moldatu egin genuen lehenengo 2 urtetan edo erabiltzeko. Eta gero hemen gelditu behar genuela erabaki zenean obra bat egin zuten. Hori 1996an edo izan zen».

Garai batean Mikel Deuna ikastola egon zen lekuan jada 10 urte bete ditu beraz liburutegiak. Huarte liburutegiaren kokapenaren inguruan mintzatu da. «Lekua ederra da, handia, zabala, argitsua, nik uste leku polita dela eta nahikoa dela. Lokalarekin zortea izan genuen. Arazo bakarra da lekua non dagoen: hau bazter batean dago, herritik aparte eta honera etortzen denak horretarako asmoa duelako egingen du, baina pasaeran inoiz ez. Lokal hau bera herriaren er-

dian egongo balitz, ba behar bada beste gauza bat izango litzateke».

Liburutegia hiru zatitan banatuta dago, nahiz eta dena bat den: sarreran haurren txokoa dago, haurrentzako eta umeentzako liburuak aurki daitezke bertan, erdigunean eskaerak egiteko eta informazioa eskatzeko tokia dago, baita ordenagailuak, erakustokia, eta aldizkariak ere. Azkeneko zatia erakustoki batzuen bitartez berezita dago eta ikasteko txokoa da.

## Nafarroako sarea

Nafarroko Gobernuak liburutegiek sare bat osatzen dute eta honen arduradun osoa Nafarroko Gobernua da: langileak berak jartzen ditu, baita liburu gehienak ere, eta udalarekin daukan hitzarmen baten bitartez Udalak lokala jartzen du. Jose Luis Huartek sarearen funtzionamendua

azaldu du. «Katalogo kolektibo bat daukagu Nafarroan, gainera azkeneko urteetan liburutegi morderoxka bat informatizatu dira, eta hemengo katalogoa ere informatizatuta dago. Hemengo liburu guztiak sarean sartuta daude. Nafarroako beste liburutegietatik ere begira daiteke, baita etetik ere».

Nafarroako Gobernuak sare guztirako liburu kopuru bat erosten du. «Hortik aparte aurrekontu batzuk dauzkagu, eta gero, hitzarmen bat dela medio, Udalak ere diru bat jartzen du urtero liburuak erosteko. Hemen orokorrean, nola euskarazko liburu gutxi xamar bidaltzen dituzten, aurrekontua euskarazko liburuak erosteko erabiltzen dugu». Huarteren ustez, aukera horrek beste batzuk kentzen dizkie, erderazko beste liburu batzuk erosteko aukera, esaterako. «Guk beti esaten dugu euskarazko liburuak erosteko aurrekontu berezi bat eduki beharko luketela, adibidez 10 urte bitarteko erderazko liburu asko bidaltzen dizkigute Nafarroako beste liburutegietara bezala, eta gu euskaraz gehiago behar-tzen gara. Hemen D ereduak bakarrik dago eta 6, 8, 10 urteko umeek denek euskaraz irakurtzen dute».

Leitzako liburutegian 2 ordenagailu daude, eta hauek liburuak begiratzeko erabiltzen dituzte, baina bertan internet ere erabil daiteke edo lanen bat egin, dohainik. «Jendeak ordenagailuak asko erabiltzen ditu, umetxoak asko etortzen dira. Horregatik, erabiltzaile bakoitzak muga batzuk ditu denbora aldetik. Honetaz gain, interneti dagokionez, Nafarroako Gobernuak filtro batzuk ditu eta oso zaila da». Ordenagailu bat Udalak jarri zuten eta bestea

## Egoera, Nafarroan

Gabezirik handiena Iruñeko liburutegi nagusiak daukala dio Jose Luis Huartek. «Liburutegi nagusia egoera okerrean dago da eta urte asko dira jada liburutegi berria egiten ari direla. Duela zenbait urte jardunaldi batzuk egin ziren horri buruz 3 egunetan zehar, El Corte Ingles dagoen horretan egin behar zutela liburutegia. Proiektu bat izandu zen, baina beti atzeratzen joan da, eta hortxe dago». Honetaz gain, orokorrean Nafarroako liburutegietan langileen % 40a aldi bateko langileak direla dio Huartek. «Azkeneko urteetan langileei dagokionez arazoak izan ditugu. Langileen % 40 tik gora aldi batekoak izateak arazoak ekartzen ditu bajak hartzeko orduan. Pertsona bakarrak lan egiten duten liburutegietan, Leitzan bezela, ez bada baja luze bat, ez dute ordezkorik jartzen».

## Kultur Etxea Leitzan

Liburuak eta kultura eskutik hartuta doazenez, Leitzak Kultur Etxe ezaren inguruan bizi duen egoerari buruz gogoeta egin du Huartek. «Kultur Etxea dudarik gabe behar da. Kultur azpiegitura aldetik eskasia dauka Leitzak, garbi. Leitzan Kultur Etxerik ez dago, ez dago hitzaldiak emateko lokal bat. Leitzak dituen azpiegitura kultural bakarrak liburutegia eta zinea dira eta zinea lokal bezala handiegia da hitzaldiak emateko, edo bilerak egiteko, erakusketak jartzeko... normalean horiek izaten dira Kultur Etxe baten barruan dauden aretoak. Hemen jendeak bere kasa funtzionatzen du, zerbait egiteko orduan ahal duten tokian biltzen dira herritarrak: Aurre-

## HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**Mailegia.** Liburutegia hiru zatitan banatuta dago: umeen txokoa, liburuak eskatzeko gunea, eta ikasteko txokoa. Liburuak eskatzeko gunea erdialdean dago. Bertan liburuen inguruko informazioa ere eskatu daiteke, edo aldizkariak begiratu. Erabiltzaileentzako 2 ordenagailuak ere hor daude. N. GARZIA



**Haurren txokoa.** Liburutegian sartu eta lehenengo zatia haurren txokoa delakoa da, eta bertan haurrek haientzako egokiak diren liburu eta aldizkariak eskuragarri dituzte. N. GARZIA



**Ikasteko txokoa.** Liburutegiaren bukaeran ikasteko txokoa dago, erakustoki batzuegandik bereizituta. Eskolako lanak eta talde lanak egiteko ikasleak txoko honetan biltzen dira. N. GARZIA



**13.500 ale.** Leitzako liburutegian liburu guztiak eskura daude, ez dago deponitorik. Orotara 13.500 ale katalogatuak daudela dio Jose Luis Huarte liburutegiko arduradunak. Urtean, erabiltzaileek 4.500-5.000 mailegu inguru egiten dituzte Leitzan. N. GARZIA

ran, udaletzeko gelaren batean... ez dago bilerak egiteko toki bat».

Duela 4 edo 5 urte Leitzako udaletxeak Kultur Etxe bat herrian jartzea proposatu zuen, etxe batean. «Nafarroako Gobernua aurreproiektua onartu zuen. Eraikin honetan lehenengo solairua eta etxabea liburutegiak erabiltzeko izanen ziren. Liburutegietako arduradunak etorri ziren eta oneritza eman zuten, eta hurrengo urteko aurrekontuan altzari berriak jartzeko eskaintza ere egin zuten». Etxe hori Maxurrenea zen. «Arduradunak 2 edo 3 aldiz etorri ziren, baina azkenean kuarterlerako erabili zuten».

Ondoren, azkeneko Udalak ere Atekabiltzen papera aztertu zuen. «Zertarako erabili zitekeen aztertu zuen, eta Kultur Etxearen proiektua ere hor zegoen, eta hor dago oraindik».

## Irakurzaletasuna Leitzan

Nafarroako Gobernuak datuen arabera, Leitzan biztanle bakoitzak urteko 1,6 liburu irakurtzen ditu. «Urtero ateratzen diren datuen arabera inguruan dagoen mailarako nahiko ongi gaude. Espainiako batazbestekoa bazuagoa da, baina Dinamarkakoa 7tik gorakoa da. Horrelako herri batean irakurtzeko beste kultura bat dago, ohitura kontua da», dio Jose Luis Huartek. «Irakurle-goari dagokionez nire ustez jendeak liburutegia dezente erabiltzen du, gehiago erabili daitekeen arren». Beraz, helburua liburutegira jende gehiago hurbiltzea da. «Oraindik jende gehiago ekarrarazi nahi dugu eta horregatik irakurketa bultzatzeko politikak

egiten ditugu, adibidez, 15 egunetik behin Karrape Irratian programa bat egiten dugu, liburuetat hitz egiten dugu, gero urtean zehar liburuaren egunean, eta horrelakoetan gauza bereziak egiten ditugu. Honetaz gain, liburuaren aurkezpenak ere egiten ditugu eta Ipuin Lehiaketaren sari banaketa ere hemen eman zen. Urte batzuetan gehiago ibiltzen gara, beste batzuetan gutxiago». Datuek askotan errealitate bat nekez islatzen duten arren, datu hauen arabera Leitzan kopuru honetako beste zenbait herriekin parekatuz gero, 26 herrietatik 11. a da. «Nik uste liburuaren maileguak pixkanaka igotzen jarraitzen duela... Jende gaztea etortzen

da eta gero 20 urtetik gora berriro irakurtzen hasten den jendea, 12 urtetatik 20 urte arte utzi ondoren». Orokorrean jende zaharrak irakurtzeko ohiturarik ez duela dio Huartek. «Oraindik eskolako zerbaite delate uste dute, Finlandian eta horrelako herrialdeetan berriz ikaragarri irakurtzen dute».

Gaur egun garai batean baino ume gutxiago egoteak ere zerkusirik badu liburutegia erabilpenarekin. «Garai batean ume gehiago zeuden Leitzan. Eskolan 600 ume zudenean ume asko ibiltzen ziren liburutegian eta arratsalde batzuetan lanez lepo ibiltzen ginen. Orain askoz ume gutxiago daude, hori ere nabaritzen

da eta gero ohiturak aldatu egin dira. Duela 20 urte liburutegia besterik ez zegoen eta eguraldi txarra egiten zuenean denak hemen biltzen ziren. Orain kiroledegia dago, eta hor inguruan ibiltzen dira».

### Gehien irakurtzen direnak

Jendeak gehien irakurtzen dituen liburuak prentsan ateratzen direnak direla dio Huartek. *La catedral del mar*, *El código da vinci*, *Los pilares de la tierra...* dira gehien irakurtzen direnak. «Ahoz ahokoak ere funtzionatzen du, eta Toti Martinez de Lezearen liburuak ere asko irakurtzen dira. Pello Urkiolarena ere batzuk eskatu dute, morboarengatik». ◀



## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Alegia.** Txintxarri Eguna azaroaren 18an izango da. Bazkaria Txintxarri jatebexan izango da. Bazkarirako txartelak 35 eurotan salgai Kafe Letamendian, jubilatuen tabernan eta Landa Enea kafetegian.

**Alegia.** Zazpi astoren gainean bertso eskolak bertso afaria antolatu du azaroaren 9an Inburre elkartearen Inigo Izagirre eta Julen Zulaikarekin. Izen-ematea, Eteberriar, Ixkiñan, Hilarion, Arruenen, Kafe, Inburre elkartearen edo Jubilatuenen 15 eurotan.

**Irura.** Udalak ondorengo hiru ikastaroetatik bi antolatu nahi ditu: lehen sorospen tailerra; edergintza, makilaje eta kosmetika tailerra eta gozogintza. Izena emateko: udalebexan, liburutegian, 943 69 13 33 zenbakian edo kultura@irura.net helbidean.

**Orexa.** Herri afari irlandarra 21:00etan Turlach talde irlandarra bertan delarik. Ondoren DJ Bull izango da goizaldera arte.

**Tolosa.** 39. Abesbatza Lehiaketa: Kanada, Kuba, Eslovenia, Erresuma Batua, Brasil eta AEBetako ahots taldeak Santa Klara elizan 11:00etan eta Leidorren 16:00etan; Golden Apple Quartet Leidorren 20:00etan; harrera udalebexan 22:00etan eta dantzaldia Beotibarren.

**Tolosa.** Ost eta Muted musika taldeak Bonberenean 22:30ean.

**Tolosa.** Engomadora Modernako langile ohien bazkaria azaroaren 10ean izango da Fronton jatebexan. Izen-ematea, 943 671943, 943 674669 eta 943

651955 telefono zenbakietan.

**Tolosa.** Jesusen Zerbitzarien haurtzaindegiko ikasle ohien bilera azaroaren 11n izango da: meza 11:30ean komentuan eta bazkaria Uzturre sagardotegian. Izen-ematea, 943 673081 telefonon.

**Tolosa.** Zezen-plazako bizilagunen afaria izango da azaroaren 10ean. Izen-ematea, ohiko lekuan.

**Tolosa.** Mendia eta naturaz argazki lehiaketa antolatu du Oargi mendi elkarteak. Argazkiak Karlis argazki

dendan entregatu behar dira hilaren 15erako. Sari ederrak izango dira.

**Ugarte.** Sardina-jatea izango da iluntze partean. Txartelak salgai daude herriko tabernetan. 10 euroren truke. Txartelak azaroaren 4ra arte izango dira salgai. Beraz, erabakia hartua baduzue, ez egon zain, eta segi txartela erostera.

### ERAKUSKETAK

**Tolosa.** Maria Cristina Gonzalezen oleoak daude

ikusgai Lanbroa tabernan azaroaren 3ra arte. Upelategiak, paisaiak... askotarikoak dira gaiari dagokionez.

**Tolosa.** *Ipuinartean II* Ereite elkarte multikulturalaren erakusketa Aranburu Jauregian, hilaren 10era arte ikusgai.

### ZINEMA

**Villabona.** Haurrentzako *Tortugas Ninja* filma, gaur eta bihar, hiru euroren truke.

**Villabona.** *Sin reservas* Scott

Hicks zuzendariaren filma emango dute ondorengo egunetan: gaur, 22:30ean; bihar, 19:30ean; eta etzi, astelehenean, ikuslearen eguna (sarrera 3 euro), 21:30ean.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur**  
Irurtzun. Mutilloa, A.M. San Martin, 5. 112.

**Tolosa.** Etebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## AGURRAK ▶

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.**  
**Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...**

**hitza**  
agurren tartea

**PILOTA PARTIDUAK**  
aspepelota.com

**Azaroak 5 • Astelehena 16:30**

**Eugi - Goñi III**  
**Capellan - Eulate**

**MENDIZABAL II**  
**APEZETXEA**

**Uriarte - Argote**

**Tolosako Beotibar pilotalekuan**

**Kimetz**

denda berria

**Mutil arropa**  
Kale Nagusia 13  
943 24 94 96

**Neska arropa**  
Kale Nagusia 21  
943 67 38 62

**GAURKO**

**AZAROAK 4, ILANDEA**  
**TOLOSA, Usahal Kiroldesia**  
17:00etan

**hitza**

## hitza Harpidedunen txokoa

HITZAko harpidedunen artean, datorren **azaroaren 13an, 21:00etan** Tolosako Leidorren **Cesaria Evorak** eskainiko duen kontzerturako **sarrera pare bat** zozketatuko dugu!

Parte hartzeko, deitu telefono zenbaki honetara: **943 65 56 95**

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea



**Cesaria Evora**